**KIROLA** 250 PARTAIDE ELGOIBARKO MENDI ITZULIAN · **ERREPORTAJEA** HURRENGO EGUNEKO PASTILA
**KULTURA** ELGOIBARKO IZARRA IDATZ LEHIAKETAKO SARITUAK

# BARREN

ASTEKARIA

E L G O I B A R K O   A S T E K A R I A · 2004ko maiatzaren 28a/XII. urtea/490. zkia




# Kontuz!

## Nahi gabeko haurdunaldiak


Aurrematrikulazioa
ekainaren 1etik 9ra
Matrikulazioa
uztailaren 1etik 7ra
AZKOITIA
EMAN EGURRA
zure etorkizunari !
Altzarigintzak behar dituen teknikari
kualifikatuak prestatzen ditugu
ZURGINTZA eta ALTZARIGINTZA
LAN IRTEERAK
%95
%100
ERDI MAILAKO ZIKLOA
GOI MAILAKO Z1KLOA
LAN IRTEERAK:
zur eta altzari enpresetan
• Biltegi kontrolatzailea
• Osagaien mekanizatzailea
• Akabera aplikatzailea
LAN IRTEERAK:
zur eta altzari enpresetan
• ProgramaketanTeknikaria
• Antolamendu Tekn ikaria
• Laborategian Tekni karia
943 85 21 74 • 943 85 22 65
1959tik
Urola
Lanbide Heziketa
www.urola.org
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


ETXEBIZITZEN SALMENTA
ETXEBIZITZAK
APARTAMENDUAK
DUPLEXAK
LORATEGIDUN DUPLEXAK
GARAJEAK
MERKATARITZA LOKALAK
MAALA
BIZIGUNEA
Salmenta bulegoa:
Bernardo Ezenarro, 2
943 740 858
Eraikitzailea:
asta.
luir
AMENABAR
Sustakailea:
URTAGO
PROMOZIOAK, A.I.E.



## Deabrua berriz

Deabruak tentazioz bete du berriz lurra. Eta oraingoan tekonologiari heldu dio, aro moderno honetan inork ez dezan esan infernua atzeratua geratu denik. Elizak bekatu berriak izendatu ditu. Oraingoan bekatariak dira, besteak beste, chat edo email bidez gezurrak esaten dituztenak edo musika "pirateatzen" dutenak. Are gehiago, tentazioan erori direnak konfesatzera joan behar dira. 40 teologo bildu dira egunotan Erromatik gertu eta han informatika izan dute hizpide. Diotenez, gaur egun ia-ia ordenadoreekin ari dira hazten eta hezitzen gaztetxoak. Ordenagailuekin jolasten dute, ordenagailuetan dituzte enziklopediak eta ordenadoreen bidez bilatzen dituzte lagun berriak. Ordenadoreak makinak dira. Arrazoirik gabeko gailuak. Hotzak eta zorrotzak. Eta balorerik gabeko heziketa jasotzeko arriskua dago. Bale.

o

o

Baina oso bestelako kontua da ordenadorea erabiltzeagatik bekatari bihur gaitezkeela esatea. Nik dakidan bakarra da nahikoa zaila dela berez bizitza eta nahikoa arazo izaten dugula egunerokotasunean. Nahikoa burukomin ematen dit egunero iratzargailuak eta ea zergatik ez ote naizen aberats jaio galdetzen diot nire buruari. Baina gero, lanak gauza asko ematen dizkidala ere konturatzen naiz. Eta gaur egun, ordenadoreei esker, asko erraztu dela beharra. Eta gainera tarteka, email bidez lagunen gutunak eta mezuak jasotzen ditudala. Eta horrek bizipoza ematen dit. Eguzkiak bezala. Dermatologoek eguzkia gaiztoa dela esatea, tira. Baina teologoek internet deabruaren tresna dela salatzea....

Jasone Osoro



## Elgoibarko itzulia

Azken urteetan, utzita diot mendian ibiltzeari. Arrazoi zehatzik izan gabe. Aspalditxo, eta ez hain aspalditxo egindako mendi-ibilaldiak gaur egun ditudan ahalbideetatik kanpo daudela ohartu naiz. Dexente ibilia naizen arren, nagikeriak hartu nau bere mende.

Zorionez, nagiak erabat jo aurretik, Eigoibarko Itzulia gauzatzeko aukera izan nuen. Hiru urte dira oinaze hura jasan nuenetik. 180 bat lagun abiatu ginen sarri oraindik ere kalean ibiltzen garen ordu beretsu batean. Eguraldi zoragarri batetaz gozatuz, Bioin-en gora zein Kalamuan gora sekulako madarikazioak jaurtiz (partaide guztiok igotzen al duzue tontorra?) ohiko lekuan eman nion amaiera entsaladarik ere gelditzen ez zen ordu batean. Hortxe lurperatu nuen, ordea, Itzulia ezagutze ezaren samina.

Egun, ikusle objektibo bat naiz; partaide kopurua eta ibilaldiaren izaera modu hotzean aztertu dezakeen begirale arrunt bat. Sasoi batean lagunarteko bilera bat zen hura, mendi-martxa eder bat bilakatu da. Gero eta errekorzale gehiago dauden arren, bere hortan du ofizialki antolatzen hasi zenetik izan duen izaera herrikoia, beti dugun arren ibilbidean emandako denbora murrizteko nahi ezkutu hori.

Aldaketarik handienak, horratik, bere handitasunak eragindakoak izan litezkeela iruditzen zait. Harro egon gaitezke 250 partaidek izena ematen duten mendi itzuli batek Morkaiko M.E.k antolatu ahal duen baliabideekin aurrera eraman eta jaiotzetik duen formatoari eutsi ahal izatea. Urtetik urtera izandako partaide kopuruaren gorakada ikusirik, batek ez daki muga non izan lezakeen. Antolaketa lanak itzuliaren neurrira egokitu beharra ere izango da orduan. Badakit kanpotik aholku ematen ibiltzea erraza dela, baina datorren urterako nire nahia, uler ezazue antolatzaileok, goizeko 6etan abiapuntuan izatea da.

Gotzon Arrieta

111111111111~11,¯~

exak ........................................................ 5

MOtZ MOtZ ........................................................ 8

gehigarria ........................................................ 13

kiROlAk ........................................................ 28

# eskutitzak

2004-V-28

## JOAN ZEN ASTEKO KEXARI ERANTZUNA

Barrenen pasa den astean kiroldegia zahartuta geratu dela kexatzen zenari eta diru pixka bat gastatzeko ordua dela adieraziz hainbat kritika luzatu zigunari ondorengo azalpenak kontuan izatea eskertuko nioke:

- Gipuzkoako kiroldegi gehienak bezala, Olaizaga kiroldegiak bere ateak 80. hamarkadan ireki zituen, 1988. urtean hain zuzen ere. Beraz, ez dauzka zuk diozun 20 urte horiek. Hala ere, ez dut uste, urteak alde batera lagata, gure kiroldegia zahartuta gelditu denik, are gutxiago bere erabilera maila eta funtzionaltasuna kontuan izanik.
- Diozun bezala, igerilekuan eta bere aldageletan hezetasun handia egoten da. Konkretuki hezetasun hori %70 eta %75 inguruan mantentzen ahalegintzen gara, alde batetik Osakidetzak behartzen gaituelako, eta bestetik, hezetasun gutxiagorekin hotza nabarituko zenukeelako. Beharrezkoa den hezetasun horrek ateetan eta hormetan ondorioak eragiten dituenez, urtero aldagelak eta ateak pare bat aldiz margotzen ditugu. Hortaz aparte, igerilekuetatik urtean 99.000 erabiltzaile pasatzen direnez, ateak edo takilak noizean behin puskatu egiten dira, baina ziurtatzen dizut gure mantenuko pertsonala ez dela egoten eskuak gurutzatuta.
- Lababorik ez daukagula diozu, eta egon badaude; mutilentzako eta neskentzako komunetan, hain zuzen ere.
- Ispilu txiki bat soilik dagoela diozu, eta ispilu horren neurria metro eta erdikoa da.
- Dirua gastatzeko ordua dela diozu, eta ez dakizu azken bost urteetan 60 milioi pezeta (360.000 euro) gastatu ditugula kiroldegia berritzen. Hauek dira egin ditugun berrikuntzak: kantxako eta igerilekuko teilatuak, kantxan kautxozko zolua jartzea, hiru sauna berri, bi igerilekuen depurazio sistemak, bi igerilekuen zoluak, gimnasio bati egurrezko lurra eta ispiluak jartzea, beste gimnasio bati tatami berria... Urtean bataz beste 12 milioi pezeta inbertsiotan gastatzeak ez dut uste egiten duzun komentarioa merezi duenik.

Bukatzeko, eskaera bat luzatuko nioke Barren astekariari: eskutitzen atalean bezalaxe, kexak ere izenpetuta azaldu daitezela.

Mila esker.

Ramon Mujika
Kiroldegiko Zuzendaria

## LARUNBATEAN BILBORA!

Larunbatean Bilboko manifestaldira joateko gonbidapena luzatu nahi diegu Herritarren Zerrendaren alde sinatu duten guztiei. Oinarrizko eskubide urraketa honen aurka gure ahotsak batera altxatu behar ditugu, ez delako kandidatura bat arriskuan dagoena, gure Herriaren duintasuna eta hitza baizik. Ordua da euskal hiritarrok geure erabakiak libreki har ditzagun, espainiar agintariak ez direlako inor guri bakarrik dagozkigun erabakiak hartzeko. Euskal Herria libre Aurrera! Autobusa 16.30etan Plazan.

Juan Karlos Markos, Herritarren Zerrrendaren izenean
EHNA A5551084B

# Urruzunoren
## begi ezkutua

## Orriak



Orri zikinek daukate balioa. Orri garbi, txukun eta ordenatuek ez didate deusik esaten. Euren tragana ahaztu nahi dutela iruditzen zait, mixeriak ezkutatu, nondik datozen erakutsi nahiko ez balute bezala. Aldiz, eskuz idatziriko orri zirriborratuak zuzenagoak iruditzen zaizkit, lerro artean ezkutaturik egilearen ispilu salatzailea aurkitu ahalko bagenu bezala.

Saia zaitezte, bestela, eskuz eta presaka hartutako apunte batzuk edo eta idazteko grina izan zenuten egun hartako izkribu hura garbira pasatzen. Txukunagoa geldituko zaizue, erakusgarriagoa, baina bidean kontzienteki eta inkontzienteki galdu den informazioaz ohartzea ez zaizue zaila egingo.

Otutzen zait zerbait garbira pasatu eta txukuntzen dugunean, gure prejuizio eta kontzientziak jositako galbahetik pasatako informazioa soilik uzten dugula idatzian, eta horren ostean, bigarren idatzi honetan dagoena sinesten dugula geuk ere, bertan isladatzen dena baita finean izan nahiko genukeena.

Iñigo Otaño


BaRRe'ri

Nalarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
tr 943 74 41 12
Publizitatea:
o 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide initrmatikoa:
www.topagunea.cornibarren
ARGITARATMILE0
Elgo barko Izarra

LAGLINTZAILEA ElgOiDark0 Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea PLIBULTATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone OSOPS, Ainhoa Lorioso, Nestor Fuento, Pello Mendlzabal, Edurne Bilbao, Golzon Arrieta, Lorea Perez de Albenlz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren Iburutik Impaimstreout Gertu Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDELUA 58·1.035192 ISSN 1139-1855

EIZOIBAIKO IZARKA

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jourlaritzako Kultura Sailak eta Form Aldundlak diraz lagundutako alditharia.*

3111 kutxa gaavte elenr.
1DANOBAT
GOITI GRUPO 0411.401110.7
FA TAP TA

## CZ3 ©111DERIX

• **San Lorentzora bidean dauden iturrietako ura edan al daiteke?** Jende mordoa joaten da egunero San Lorentzora pasiatzera, eta bidean bi iturri daude. Lehenengoa Gelatxo Errota baserri ondoan, eta bigarrena San Lorentzoko soziedade azpian. Tratatu gabeko ura dela jartzen du, eta jendea ez da ur hori edatera ausartzen. Udalera jo dugu, eta esan digutenez, menditik datorren ura da, manantial batetik, alegia. Tratatu gabe dagoela esateak, klororik ez daukala adierazi nahi du, baina ez du esan nahi ezin daitekeenik edan. Batzutan kutsatua etorriko da, baina besteetan ez. Norberak erabaki beharko du ur hori edan edo ez.

11>




## XRA

• Herritar batek esan digunet, **Madalako errotondan jende askok Urasandira igotzeko bidea, bertatik jaisteko erabiltzen du: "Debekatuta** egon arren, goizean jende asko Urasandira igotzeko bidetik, errotondara jaitsi egiten da. Lanera doazenean presaka ibiltzen dira, baina bide horretatik jaistea arriskutsua da, bi auto gurutzatzeko tokirik ez baitago. Beste aukera bat, bide hori igotzeko izan beharrean, jaisteko erabiltzea izango litzateke, baina hori aldatzen ez den bitartean, jendeak seinaleak errespetatu beharko lituzke".



## 1111111,0,21

• **Elgoibarko mendizale batek Iñaki Beristainek, Valentin Txurrukak eta Jaime Martinezek egindako lana txalotu nahi du. "Zorionak** hirurei eta Morkaiko elkartekoei, itzulia hain ondo antolatzeagatik".

• Guraso batzuk **Elgoibarko katekistak zoriondu nabi dituzte, jaunartze ospakizuna oso ondo antolatu zutelako: "Dena** oso ondo antolatuta egon zen, eta hiru urte hauetan gure seme-alabekin izandako pazientziagatik, txalo bero bat merezi duzue. Jarraitu horrela!"

• **Elgoibarko Mendi Itzulia egin zuten hainbat partaidek, Morkaiko Mendizale Elkartea txalotu nahi du: "Lan** handia egin dute mendi itzulia antolatzen, eta eskertzekoa da. Dena oso ondo atera zen. Ondo eginiko lana eskertzekoa izaten da". Mendaroko gazte talde batek ere, zorionak eman nahi dizkie Elkarteko partaideei: "Animo eta segi horrela!".



*Azkenaldian gero eta gazfeago hasten da jendea sexu harremanak izaten. Informazio asko dago sexuaren inguruan, eta askotan jendeak dena dakiela uste du. Hala ere, asko dira oraindik ezjakintasunak jota, ondorio latzak pairatu behar izaten dituztenak; nahigabeko haurdunaldiak edo HIES gaixofasunaz kutsafzea izaten dira ezbehar ohikoenak. Askok ez dute antisorgailurik erabiltzen. Aitzakia desberdinak erabiltzen dituzte, eta azken aldian modan jarri da Hurrengo Eguneko Pilula antisorgailu moduan erabiltzea. Eli Moreno, Biluzik Sexologia Zerbitzuko arduradunak esan digunez, 16 eta 22 urteko gazteen arfean, izugarri igo da pilu1a honen kontsumoa, batez ere asteburuetan. Biluzik-ek Hurrengo Eguneko Pilulari buruzko kanpaina bot jarri du martxan, eta gaurkoan gure artera ekarri dugu, honi buruzko informazioa lortzeko asmoz.*

# Eli Morelo *Biluzik* Sexologia Zerbitzuko teknikaria

# "Hurrengo Eguneko Pastila ez da antisorgailua"







**Zer da hurrengo eguneko pilula?**

Ez da antisorgailua, ezta pilula abortiboa ere. Ez da antisorgailua jokabide arriskutsuaren aurretik ez delako hartzen, eta ez da pilula abortiboa, hartzen denean, ez dagoelako haurdunaldirik.

**Zertarako balio du?**

Nahigabeko haurdunaldia ebitatzeko balio du. Horretarako bakarrik, ez ditu HIESa eta ETSak (Transmisio Sexualeko Gaixotasunak) ebitatzen. Obulazioa ezeztatu edo atzeratu dezake. Espermatozoideen obulorantzako bidea oztopatzen du.

**Noiz erabili behar da?**

Antisorgailuak kale egiten duenean erabili behar da. Preserbatiboa apurtzen bada, edo barruan gelditzen bada, pilula hartzea ahazten bada, edo koito harremana antisorgailurik gabe egin bada. Nolabait esateko, emergentziazko pilula da. Azkenaldian gehiegi jotzen da hurrengo eguneko pastilara, eta ez da bide egokiena.

**Nola erabiltzen da?**

Bi pilula izaten dira. Lehenengoa koito harremana mantendu eta 72 ordu pasa baino lehen hartu behar da, eta bigarrena, handik 12 ordutara. Sendagile batekin egon nintzen hizketan, eta komentatu zidanez, biak batera ere hartu daitezke.

**Ba al dauka ondoriorik?**

Bai, botaka larria, tripako mina, nekea, buruko mina, mareoak, bularretako mina... Ondorio hauek ez dira beti agertzen, eta nahiko azkar desagertzen dira. Ez da broma pilula hau hartzea, eta gainera garestia da,

## "Hurrengo eguneko pastila emergenUiazko pastila da"

**Hilekoa noiz etortzen da?**

Pilula hauek hartzen dituzten emakumeen erdiak hilekoa betiko egunetan izaten dute, hala ere, aurreratu edo atzeratu egin daiteke.

**Non lortu daiteke Hurrengo Eguneko Pilula?**

Gertuen dagoen Osasun Zentrora joan, eta medikuari errezeta eskatu behar zaio. Askotan arazoak izaten dira lortzeko, mediku guztiek ez baitute errezeta ematen, eta legalki ez daude beharturik pilula hau ematera. Horregatik, antisorgailuak behar den moduan erabiltzea izaten da sexu harreman seguruak mantentzeko bide egokiena.

**PRESERBATIBOA ETA PILULAK ANTISORGAILU ERABILIENAK**

Antisorgailu mota ugari daude aukeratzeko, eta norberak hobekien datorkiona aukeratu behar du. Azken aldian, bi antisorgailua berri atera dituzte: aroa eta partxeak. Bi hauek pilulen efektu bero egiten dute. baginan kokatzen da hi astez, eta hilekoa tokatzen den astean kendu egin behar da. Partxeak, besoan jartzen dira, eta astean behin aldatu behar dira. Hala ere, gazteen artean pilula eta preserbatiboa dira erabil nak.




**PRESERBATIBOA ONDO ERABILTZEKO GOMENDIOAK**

- Preserbatiboa zakila baginan, uzkian edo ahoan sartu aurretik jarri behar da, beti ere, zakila tente dagoenean.
- Kondoiaren poltsabma kontuz zabaldu.
- Preserbatiboa zakilean jartzerakoan, preserbatiboak puntan duen depositua sakatu behar da, barruan airerik ez geratzeko.
- Kondoia luzatu, zakila bere osotasunean estali arte.
- Isurketaren ondoren, zakila tente dagoen bitartean, zakila atera, preserbatiboa atzaparrekin helduz.
- Kondoia zakarrontzira bota behar da, inoiz ez komunera.
- Ez da sekula kadukatutako kondoirik erabili behar.
- Preserbatiboa harreman sexual bakoitzaren ondoren aldatu egin behar da.
- Preserbatiboak Transmisio Sexualeko Gaixotasunak ebitatzen ditu, eta haurdun ez geratzeko metodorik seguruenetarikoa da.

**PILULARI BURUZKO GALDERA OHIKOENAK**

- Nola hartu behar da pilula? Hilekoa jaisten den lehenengo egunean hartu, eta hiru astez hartu behar da. Gero astebeteko epean utzi egin behar da, eta hilekoa jaitsiko da. Egunero ordu berean hartu behar da pilula.

Pilula bat hartzea ahazten enean, zer egin behar da? 12 orduko epean konturatuz gero, berdin-berdin hartu. 12 ordu baino gehiago pasatu badira, gogoratu zaren unean hartu, eta aurrerantzean pilulak hartzen jarraitu. Harreman exualetarako preserbatiboa ili.

**P1LULAREN INGURUKO MITOAK:**

Badaude pilularen inguruan hainbat beldur, baina zientifikoki egiaztatu dira ondorengoak:

- Pilulak ez du gizentzen.
- Ez du ugalkortasuna gutxitzen.
- Ez du kantzerra sortzen.
- Ez du sexurako gogoa kentzen.
- Ez da beharrezko pilula uztea gorputzari deskantsua emateko.
- Ez ditu granoak ateratzen.
- Ez ditu umeengan deformazioak sortzen.



# Herriko etxe berrien bataz besteko prezioa 40 milioi pezetatik gorakoa da

## Etxebizitzaren neurriaren eta solairuaren arabera ezartzen da prezioa

Azken urteotan etxebizitzen prezioak nabarmen egin du gora, eta gorakada hori Elgoibarren ere igarri da. Gaur egun eraikitzen ari diren etxe berrien bataz besteko prezioa, 40 milioi pezetatik gora kokatu da. Elgoibarko inmobiliaria batek eman dizkigun datuen arabera, 3 logela, bi komun, egongela eta sukaldea daukan lehenengo solairuko etxe batek, 40 milioi pezeta (240.000 euro) balio ditu, eta solairuak igo ahala, bi milioi pezeta garestitzen da etxearen prezioa. Bi logelako etxebizitzak 32 milioi pezeta balio ditu lehenengo solairuan, eta gainontzekoak bi milioi pezeta garestitzen dira, hurrenez hurren. Elgoibarko etxe garestienak duplex-ak dira, eta hauek 54 milioi pezeta inguru balio dute. Esan digutenez, tokiak gaur egun ez dauka garrantzirik prezioan, etxebizitzaren neurria eta solairuaren arabera ezartzen baita prezioa.

### Bigarren eskuko etxebizitzak

Etxe berria erosi ezin dutenek, bigarren eskuko etxea erostera jotzen dute. Hala ere, egungo egoeran bigarren eskuko etxebizitza erostea ere, oso garesti ateratzen da. Inmobiliariatik esan digutenez, egoera onean dagoen 90m2ko etxe batek 40 milioi pezeta inguru balio du.

Bigarren eskuko etxeen prezioa jaitsi egiten da, etxebizitzak obra egiteko beharra



baldin badauka. Hori dela eta, bigarren eskuko etxebizitzak saltzea gehiago kostatzen dela kontatu digute, izan ere, etxebizitza erostea nahi duenak, prezio berean nahiago izaten du etxe berria erostea.

# "Harrera Familia" kanpaina jarri du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak

Gaur egungo gizartean familia asko dira denboraldi batzuetan beren seme-alabez arduratu ezin direnak. Foru Aldundia familia hauei behar duten guztia ematen saiatzen da, adingabeak beren familietatik aldendu ez daitezen, baina oraindik ere, haur eta gazte asko daude Foru Aldundiaren etxebizitzetan bizitzen. Harrera Familiaren bidez, hiru aukera nagusi eskainiko zaizkio haurrari: lehenik, familiak bakarrik eman ditzakeen maitasuna eta babesa, bestetik komunitatean erabat txertaturik bizitzeko aukera eta, azkenik, etorkizunean beraien familia osatuko dutenean familia eredu egokia izatea.

Harrera Familiak bi ezaugarri nagusi ditu: aldi baterako izatea eta haurraren familiarekin harremanetan egotea.




Adingabearen eta zaindu ezin duen familiaren aldeko ekintza da, baina ez du berezko familia ordezkatu nahi. Haur hauek batzutan desorientatuta dauden haurrak izaten dira, izan ere, beren familiakoengandik zergatik aldendu behar duten ez dute ulertzen askotan.

### Hartzaile izateko baldintzak

Programa honetan parte hartuko duten familiek beharrezko prestakuntza eta aholkularitza izango dute, eta ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Familiako kide guztiak ados egotea
- Familian hartzea nahi izatea, ez adoptatzea
- Haurra den bezala hartzeko prest egotea
- Haurra hartu aurretik prestakuntza aldi bat egiteko prest egotea
- Elkartasuna erakutsi nahi duten familiak izatea
- Ez dutenak bere gurasotasun nahia asetu nahi
- Seme-alabak dituztenak hobesten dira
- Familia biologikoak haurrarentzat duen garrantzia onartzea

### *ESKERTZA*

*2004ko maiatzaren 25ean, 89 urte zituela hil zen,*
*AMALIA AMOREBIETA BARRENETXEA (Iñaki Lasaren alarguna).*
*Seme-alabek, bilobek, anai-arrebek eta gainerako sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

## 151 dei lortu zituzten EILT-GARE Irrati Zaletuen lehiaketan



Elgoibarko Irratizaleen Lagun Taldeak (EILT) antolatuta, 24 orduko irratsaio lehiaketa izan zen joan zen asteburuan. Larunbatean, maiatzaren 22an, eguerdiko 12:00etan hasi eta hurrengo eguneko eguerdiko 12:00ak arte egon ziren Karakatetik emititzen. 6 orduko txandatan banatuta, elkarteko zortzi lagun aritu ziren lehiaketan.

AM bandako 36. kanala erabili zuten emititzeko, eta guztira 151 dei lortu zituzten. Antolatzaileek esan digutenez, eguraldiak ez zien gehiegi lagundu, baldintza atmosferikoak ez ziren irratiz emititzeko egokienak, eta gainera beraiek erabili zuten Herri Banda oso kutsatuta omen dago, telefono mugikorren eta interneten ondorioz. Dei urrunena Burgosetik jaso zuten. Gainontzekoak, Errioxa, Nafarroa, Gasteiz eta Donostiatik eginiko deiak izan ziren. Irabazleen artean, diplomak eta irratirako materiala zozketatuko dute.

11. Irratizaletuen Lehiaketa izan da aurtengoa, eta esan digutenez, urtetik urtera dei gutxiago lortzen dituzte. Duela 9 urte 2.701 dei lortu zituzten, iaz 366 eta aurten 151 bakarrik. Datorren urtera begira lehiaketa sistema aldatzeko asmoz dabiltza, dei gehiago lortzeko asmoz.

## Duela 50 urte enpresa sortu zuten bazkideei omenaldia egin zien Danobatek




Danobatek 50 urte bete ditu aurten. Urrezko ezteiak ospatzeko, duela 50 urte enpresa sortu zuten bazkideei omenaldia egin zitzaien joan zen ostiralean, hilaren 21ean, Herriko Antzokian. Hiru enpresa izan ziren sortzaileak: Danobat, Eguzki eta Acme-Deva. Enpresa hauetako 54 langile omendu zituzten guztira.

Honekin batera, Danobaten 50 urteko historia Iaburbiltzen duen liburua aurkeztu zuten. Liburua euskaraz, gazteleraz eta ingelesez kaleratuko da, eta enpresako langile guztien artean banatuko da.

## Arrizabal Elkarteak belarra mozteko *Spider* makina aurkeztu zuen Belaustegiko zelaian

Auto elektriko eta ohiko belarra mozteko makinen artean, makina berezi bat izan zen protagonista Belaustegiko zelaian egin zen nekazal makinaria erakusketan. Arrizabal Elkarteak, Txekiatik ekarritako *Spider* belarra mozteko makina aurkeztu zuen. *Spider* zelai berdeak zaintzeko diseinatutako makina da, baina batez ere, toki zailak lantzeko balio du, iristeko zailak diren zonak; aldapak edo bide bazten•ak esate baterako.

Berrikuntzarik handiena ordea, urrutiko aginte baten bidez kontrolatzen dela da. Aldapa gogorretan belarra moztea askotan arriskutsua izaten da, beraz, *Spider* makinarekin arrisku guztiak ebitatuko dira.



22.000 euro balio ditu makina honek, baina, ohiko 12 belar makinen lana egiten du. Erabiltzeko oso erraza da, eta bere makineria potenteari esker, belar mozketa bikaina lortzen du.



*I. URTEURRENA*

*2003ko maiatzaren 19an, 83 urte zituela hi1 zen*

*PURIFICACION ONDARRA LARRAÑAGAren oroimenez*

*URTEURRENEKO MEZA izangо da*

*igandean, hilak 30, goizeko 11:00etan Azpilgoetako elizan.*

*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



### Haundik domeka honetan izango du 3. Mailara igotzeko higarren eta azken aukera

# LORTU119 AL DU IIIIUNDE 3. MAILARIA IGOTZEA?



**j6SE**
**50 urte, ajustatzailea**

Baietz uste dut. Denontzako egokia izango litzateke gainera; herriarentzat, jokalarientzat eta batez ere, beheko kategorientzat, ilusio handiagoarekin jokatzeko.



**ITHASO EGAÑA**
**13 urte, ikaslea**

Ez dakit lortuko duen. Joan zen astean moduan jokatzen badu behintzat, ez da igoko. Azken partidua ez dauka zaila, baina ondo jokatu beharko du irabazteko.



**ADRIAN CHICO**
**13 urte, ikaslea**

Baietz esango nuke. Hurrengo partidua erraza dauka, jokoan ezer ez daukan behean dagoen ekipo baten kontra jokatu behar baitu, eta nik uste irabaziko duela. ilusio handia egingo lidake.



**DANEL F. DE JAUREGI**
**27 urte, Haundiko prestatzaile fisikoa**

Taldea oso kontzentratuta dago eta nola edo hala igo egin behar da. Joan zen astean galtzea ondo etorri zaigu, partidu bat irabazteko zer egin behar den jakiteko. Oso mentalizatuta gaude.



**MARI HARMEN LIZUNDIA**
**42 urte, administraria**

Ez dut asko jarraitzen Haundi, baina gustatuko litzaidake domekan irabazi eta mailaz igotzea. Gero 3. Mailan mantentzea ere ez da erraza izango, baina jarraitzaileentzat hobe izango da.



**HARIER GIL**
**17 urte, ikaslea**

Ziur baietz. Haundia ez dut gehiegi jarraitzen, baina lagunek esan didatenez aukera handiak dauzka, eta aurtengoan lortuko duelakoan nago. Ezin naiz Lesakara joan, baina herrian ospatuko dugu.

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA

1;' IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
1) IZENA EMATEAN %i OEKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu **motorraren leoriLIoli** 16 nute beite aurretik eta **autozwen azterketa teorikoa** 18 arme In'ue fsu'et ellY

Tel: 943 74 10 11

c:ItiozomUkk 84181

# LARRUAZALA ZAINTZEKO GOMENDIOAK

Larruazala etengabe berritzen ari denez, mantenugaien ekarpenak ere jarraia izan behar du. Larruazala egoera onean mantentzea eta bere itxura ederra guk eskaintzen diogun arretaren ondorio da, hein handi batean. Sahiestea komeni direnak: babesik gabe eguzkitan luze egotea, aire egokitua, tabakoa, inguruneko kutsadura, bizimodu desegokia (elikabide okerra, eserita bizi izatea, estres emozionala...) eta beste hainbat. Bizimodu egokia izan eta elikadura orekatua hartzea, biziki lagungarriak izango ditugu gure azala osasuntsu egoteko. Gure elikaduran, ura ez ezik, bitaminak (A, B, C eta E) eta mineralak (selenioa, zinka, burdina, etc.) sartu beharko ditugu.

) Ura, funtsezkoa
Larruazalak biziki beharrezkoa du ura. Azalaren hidratazioa zuzenean eclan, edo zeharka irensten ditugun elikagaien urari esker lortzen dugu. Izan ere, fruta eta barazki gehienek, 100 gramotik 90 ura dutenez, komeni izaten da horrelakoak elikabidean sartzea, era horretan eta ia konturatzeke, premiazkoa dugun ur gehientsua hartzen dugulako. Gogoan izan, likido galerak orekatu eta hidratazio-maila egokia mantentzeko, egunero 1,3 litro ur eta likido hartu behar dugula. Horrela larruazala ederki hidratatuturik egongo da eta kaltegarri dituen toxinak erraztasun handiagoz suntsituko ditugu.

I Beharrezko elikagaiak
• Elikagai gantzatsuak: larruazala ederki egituratu eta leun antentzeko nahitaezkoak diren mantenugaiez hornitzen gaituzte. Non daude? Oliba olioan, aguakatean, fruitu siku oliotsuetan, arrainetan (urdinean, batik bat)...
• Fruta eta barazkiak: edozein motako fruta eta barazkiak komenigarriak dira larruazala hidratatuta mantentzeko.
• Mineralak
- Selenioa: eragin antioxidatzaileko mineral honek hainbat tumore (larruazalekoa edo melanoma, tartean) agertzeko arriskua arintzen du. Haragi, arrain, itsaski, labore, arrautza, fruta eta barazkietan ugari da.
- Burdinx. honen gabeziak larruazala hits edo zurbil azaltzea ondorioztatzen du. Haragi, arrain eta arrautzetan, garagardo-legamia, fruitu sikuetan, lekale eta gosaltzeko laboreetan, eta hosto berdedun barazkietan aurki daiteke.
- Proteinak larruazalaren funtsezko osagaiak dira. Dieta orekatua eginez, haragi, arrain, arrautza eta esnekiak ez ezik, lekale, labore eta fruitu sikuak tamainan hartzeak eragin mesedegarria izango du gure larruazalaren osasun eta itxura ederrean.

**Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra**


## Osasun txokuak

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda
(Zure osasunerako erremedio naturalak)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

Iñaki **Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

# Etxeko txikienak izan ziren protagonista Haur eta Gazte jaian

## Eguraldiaren ondorioz, Ikastolako frontoian izan zen jaialdia

**Elgoibarko Izarrak martxan jarri zuen Haur eta Gaztetxoentzako Plan Integralaren barnean, Haur eta Gazte** jaia **izan zen joan zen larunbatean, maiatzaren 22an. Hasiera batean, Plaza Handian egiteko asmoa bazegoen ere, eguraldi eskasa zela-eta, Ikastolako frontoian antolatu behar izan zuten. Antolatzaileek esan digutenez, ez da tokirik aproposena jaialdia antolatzeko. Goizean ume ugari bildu ziren, baina arratsaldean ez omen zen jende askorik ibili. 10 urtera arteko haurrak izan ziren jaialdira gerturatu ziren** gehienak, gazteak, ordea, oso gutxi ibili ziren.

Gaztelu puzgarri bat, quads pista eta txoko desberdinez osatu zuten jaialdia. Atxutxiamaikaren txokoan, aurpegia margotzeko aukera izan zuten haurrek. Kiribilkakoekin pinak egin eta margotzen aritu ziren, Kiribil ere bertan zelarik. **Biluzik-ekoek** sex-txokoa antolatu zuten, **eta** Gazte Informazio Guneak, mahai **informatiboa jarri** zuen. Honetaz gain, **txoko** bakoitzak bere ibilbideari buruzko **argazki** bilduma jarri zuen.



## Liverpooleko ikasleek BARREN bisitatu zuten



**Joan** zen maiatzaren 20an **Liverpooleko** ikasleak izan genituen bisitan Barren-eko erredakzioan. Elgoibar **Ikastolak** duen elkartruke programarekin, gure herrian izan ditugu pare **bat** astetan. Herriko **txoko** desberdinak bisitatu dituzte, eta Barren aldizkaria ezagutzera ere **etorri ziren. Gure zuzendariak eman** zizkien aldizkariaren **funtzionamenduari buruzko azalpen guztiak. Astero-astero** Barren **nola egiten dugun** kontatu genien, **eta** beraiek egindako galderak **erantzun genituen. Maiatzaren 28an itzuliko dira** Ingalaterra aldera.

## Pilar Ikasteixekoak Xoxoten izan ziren

Pilar Iicastetxeko 6. mailako ikasle eta irakasleek hiru egun pasatu zituzten Xoxoten. Kontatu digutenez, lehenengo bi egunetan ez omen zien eguraldiak lagundu. Behelainoa izan zen protagonista, baina bala eta guztiz ere, egin beharreko ekintza guztiak burutu zituzten. Eskalada, rappel eta tirolina praktikatu zituzten, besteak beste. Honetaz gain, Erlo, Kakuta eta Izarraitzeko gailurrak igo zituzten. Irteera neketsua, baina polita izan zela aitortu digute.



## 1111. San Lorentzora Bizikleta Irteera egin zuten Herri Eskolakoek

**Aurreko bi urteetan bezala, Herri Eskolako ikasle eta gurasoek III. San Lorentzora Bizikleta Irteera egin zuten joan zen maiatzaren 16an. Plaza Handitik irten, eta Madalara iristean IMH alderako bidea hartu zuten. Hemendik, Ibarrenea baserria pasatuz, San Lorentzoraino joan ziren. Bertan, salda eta txorizoa hartu zuten, eta jolasean aritu ziren, itzulera ordura arte.**



## Herri Eskolakoen eskutik "Plazarane Egunan jaialdia izango da bihar

Herri Eskolak antolatuta "Plazaratze Eguna" jaialdia izango da bihar, maiatzak 29, Plaza Handian. Goizeko 11:30etik eguerdiko 14:00ak arte, Atxutxiamaika Aisialdi Taldearen eskutik txoko desberdinak egongo dira, aurpegiak margotu, eskulanak, batidoak, marrazkiak eta beste hainbat gauza egiteko aukera izango da. Bertan, kamisetak eta beste jantzi batzuk erosteko aukera izango da. Trikiti doinuek alaituko dute jaialdia, eta hamaiketako egin nahi duenarentzat, salda, txorizoa eta tortila egongo da.



ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

## gure helburua

Merkatarien interesen babesa eta sustapena, bai sozialki eta ekonomikoki, era berean hauen artean solidaritatea eragin.

**Arreta pertsonalizatua eta kalitatea eskaintzen dizugu.**

## elkarrekin lor dezakegu

TeleFono zenbakia: 943.74.73.01 Posta kutxa 189 Elgoibar

TXANKAKUA




Arrieta






San Bartolome, 18 Tel.: 943 74 08 49

## CASA ASTIGARRAGA

GYS SPORT









adidas

Errosario, 16-18
Tel.: 943 74 32 68

Modako jantzietan marka onenak



## CASA ASTIGARRAGA

## GYS SPORT

## OUT LESS

Bainujantziak **10€**
Kamisetak **10€**
Zapatilak **30€**
Sandaliak **10€**
Txandalak **30€**
Prakak **5€**



Jausoro Plaza
Tel.: 943 74 43 86

**KIROL MODA PREZIO ONEAN**


MISS SIXTY
CO2
CO2
CO2
CO2
jantzidenda
San Frantzisko, 13 < Tel.: 943 74 46 66


Ferpi Modak
Emakumeentzako
moda
San Bartolome, 38
Tel.: 943 74 08 15


GARATE
jantzidenda
San Bartolome, 13 • Tel.: 943 74 11 29


Ume eta
gazteentzako
jantzidenda
gofi
Giza Eskubideen plaza, 1
Tel.: 943 74 46 53


IRIONDO KIROLAK
Mendi eta kalerako moda
ik
Marka onenak!
San Frantzisko, 37 - Tel.: 943 74 09 56


JULENE
San Frantzisko, 43
Tel.: 943 74 42 53


karkizano
San Frantzisko, 14
Tel.: 943 74 05 49


LitVik
oinetakoak
Zabalera bereziak
San Bartolome, 28
Tel.: 943 74 43 45


ZAPATADENDA
San Fra tzi lo 34 - T
0 235
PACO HERRERO
ART
CLARKS
HISPANITAS
PANAMA JACK
PIKOLINOS
CAMPER
NATURE
HOMERS
WORDING
Pauso bakoitza
ezberdina
CAMPER


Sara
Top 40 €
Prakak 64 €
Poltsa 14 €
Sandaliak 48,5 €
Top 65 E
Gona 89,9 €
Zapatak 49,5 €
Soinekoa 60 €
Esbla 25 E
Poltsa lumaduna 19,8 €
Poltsa brililoduno 19,8 €
Top 48 €
Lorea 15 €
Prakak 65 €
Polisa 20 €


SKANDALO
San Bartolome, 9
Tel.; 943 74 35 95


azkue
ARGAZKIAK
PAIZARA DIGITAL
FIT1PPIX
FUJIFILM
Kodak Fotos
1 3x 1 8 ko argazkiak
1 Ox 1 Seko prezioan
pelikulatik zein digitaletik
San Bartolome, 29 • Tel.: 943 74 08 48




## Kamara digitalak eta analogikoak

Zure argazki analogiko edo digitalak, editatu eta sonorizatuak DVDra pasatzen ditugu.

Ordubeteko errebelatua

URDAITEGIA

JANARI DENDA

# DORI



- Produktu iberikoak
- Hestebeteak Urdaiazpikoak
- Kontserbak
- Gaztak / Pateak

Errosario kalea, 29 • Tel.: 943 74 11 92

# EIZ71COUIReR4

**OKINDEGIA**



## LANTEGI PROPIOA

Espeziaiistak artisau ogietan, txapata ogietan, opiletan...

***"Betiko ogia"***

San Frantzisko kalea, 22 behea - Tel. 943 74 04 88




\-\ 1111ATEG/

4446114.

(1o

DAITEG'141

San Frantzisko, 23
Tel.:943 74 27 58



# ZELETA BARAZKIAK

NEKAZARITZA TRADIZION BABESTUA

- Landareen produkzioa Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa Banaketa
- Bertako roduktuetan erantzunik .ertukoena

Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu

EUSKO LABEL · KALITATEKO EUSKAL TOMATEA

EUSKAL BASERRI

GERNIKAKO PIPERRA · KALITATEA · CATEGORIA EXTRA KATEGORIA

ZELETA BASERRIA
San Migel auzoa ELGOIBAR
Tel.: 609 35 76 19



Ecrergi,ntza

Masajea



Aurpegiko tratamenduak



- Azala garbitzea
- Kateobitala
- Hidratazioa
- Erregenerazioa
- Lifting-a
- Zimurren aurkakoa
- Makillajea
- Betile eta bekainen tindatzea

Solarium



Depilazioa
Ezkongaientzako tratamenduak

P.M. Urruzuno, 27 - Tel.: 943 74 31 32

Gorputzeko tratamenduak

- Zetutitisaren aurkakoa
- Tinkotzaitea
- Erditze-ostekoa
- Algak eta buztina
- Manikura eta pedikura



# GOIARA



Lurrindenda

San Bartolome, 23
Tel.: 943 74 11 33




San Bartolome, 10
Tel.: 943 74 37 34
ELGOIBAR
Ikus Optika
Jose Arteixe, 10
Tel.: 943 15 75 74
AZPEITIA


MULT1OPTICAS
UZURI
elo rlgligedf
uhen zdhuld
TRAVEL
DANIEL SWAROVSKI
c rystal ea“wear
Banatzaile ofiziala
San Frantzisko, 21 ELGOIBAR • Tel.: 943 74 03 59
Ostolaza, 7 DEBA • Tel.: 943 19 21 92


gorroño
dekorazioa
San Bartolome, 21 • Tel: 943 74 01 91


Iriondo
Santa Ana 4 eta 6
Tel.: 943 74 12 34


Kala
loradenda
San Frantzisko, 24
Tel.: 943 74 45 16


utda,hon&t,a,n, batzra, ed,o best&ra,
joan, zu,r& 19tdalci, Ego tba,rko
&-rdieu,nea,n hastko da
Viajes Bilbao Express
Bilbao Express Bidaiak
Foruen Enparantza, 3
TEL.: 943 74 39 12 - FAXA: 943 74 44 24
E-POSTA: el@viajesbilbaoexpress.com
www.viajesbilbaoexpress com



# GoRoSTIZA

liburudenda

**Jostailuak**
**Eskolako materiala**
**Opariak**
**Fotokopiak**



Errosario kalea, 16 • Te .: 943 74 03 88

VNBODEGI

# RRETEGIA

**ETXEKO BEREZITASUNAK**
**Olagarroa - Haragi errea - Kazuelatxoak**

**EGUNEKO MENUAK**
**ematen ditugu**



**Pedro Muguruza, 22 • Tel. 943 742 500**






**Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak**

**PLATER KONBINATUetan aukera zabala**

Pedro Muguruza, 5
Tel. 943 74 08 06

# informazioa

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 28 | Fernandez | Fernandez |
| 29 | Yudego | Yudego |
| **30** | Yudego | Yudego |
| 31 | Zabaleta | Zabaleta |
| 1 | Etxeberria (Errosario kalean | Etxeberria |
| 2 | Ibañez | Ibañez |
| 3 | Bidasolo | Bidasolo |
| 4 | Etxeberria (Sania Arla kcienn) | Etxeberria |

**FARMAZIAK**

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kaleldarren, 9 Soralaze.

Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

**30 igandea** Eizagirre

## Eusko Tren Eusko re AUTOBI'SAK

